

INFO

Irakaskuntza Heziketa Berezia



<https://irakaskuntza.lab.eus/>

Araba: 648735679

heziketabereziaaraba@lab.eus

Bizkaia: 666778152 / 666771867

heziketaberezia@lab.eus

heziketabereziabizkaia@lab.eus

Gipuzkoa: 666775703

heziketabereziagipuzkoa@lab.eus

heziketabereziagipuzkoal@lab.eus

2024-2025 ikasturte hasiera, ohikoak bihurtu diren akatsez betea

LABen aurten ere heziketa bereziaren aitortzan urratsak emateko borrokan jarraituko dugu.

2024-2025 ikasturtea hasi eta berehala, ohikoak bihurtu diren akatsak pairatu behar izan dituzue ehundaka hezitzailek. Heziketa Bereziko ordezkagunearen lehen eguna bertan behera gelditu zen, baliabide informatiko eraginkorren faltagatik eta banatu beharrekoak baino lanpostu gutxiago eskaini zituztelako. Asteazkeneko oharrean esan genuen bezala, LABetik onartezina jotzen dugu kudeaketa arazo hau estrukturala bilakatu izana eta ikasturte honetako borroketako bat izango da ordezkoen lan-baldintzetan hobekuntzak lortzeko araudi berriak lortzea. Urtero bezala, aurten ere ikasturte hasierako esleipenetan lanpostu hutsak banatu dira. Prozesu hau ere, behar baino beranduago gauzatu izana salatzen dugu LABetik. Beste behin ere baliabide pertsonalen faltak eta baliabide informatiko eraginkorren faltak prozesua atzeratzea ekarri zuen. Horregatik uztailaren amaierara arte ez ziren gauzatu.

ESLEIPENEN PUNTUAZIOA

Azken urteetako esleipenen konparaketa taula duzue jarraian:

	LURRALDEA	LANALDIA	PLAZA KOPURUA			DERRIGORREZKO PUNTUAZIOA			AZKEN PLAZAREN PUNTUAZIOA		
			2022/23	2023/24	2024/25	2022/23	2023/24	2024/25	2022/23	2023/24	2024/25
FISIOTERAPEUTAK	ARABA	OSO	2	-	-	5,5		19	93	-	
		ERDI	1	-	-				136,5	-	
	BIZKAIA	OSO	-	-	1						-
		ERDI	1	-	-			87		-	
	GIPUZKOA	OSO	-	-	-				-	-	-
		ERDI	-	-	2				-	-	85
OKUPAZIO TERAPEUTAK	ARABA	OSO	1	-	1	4		5	49	-	26
		ERDI	-	-	-				-	-	-
	BIZKAIA	OSO	2	-	-						
		ERDI	-	-	-				-	-	-
	GIPUZKOA	OSO	1	-	-				148	-	-
		ERDI	1	-	-				85	-	-
HEZKUNTZA LAGUNTZAKO ESPEZIALISTAK	ARABA	OSO	61	9	17	3	3	3	28,50	61	45
		ERDI	65	25	18				5	7,5	12
	BIZKAIA	OSO	133	32	73						
		ERDI	113	31	38				9	7	11
	GIPUZKOA	OSO	58	10	9				92	81	67
		ERDI	50	29	5				38,5	18	55
ZEINU HIZKUNTZAKO INTERPRETEAK	ARABA	OSO	4	1	1	0	0	0	26	31	-
		ERDI	-	-	-				19,5	-	75 gazt
	BIZKAIA	OSO	2	1	3						
		ERDI	3	-	1				19	-	0
	GIPUZKOA	OSO	4	6	1				10	11	-
		ERDI	-	-	-				17 gazt.	0 gazt.	0 gazt



Banatu ez eraldatu!



ORDUTEGIAK

Aurtengo jarraibideak oraindik argitaratu ez dituzten arren, iazkoak [lotura](#) honetan dituzue. Bertan zehaztutako lan baldintzak LABek 2018an sinatutako akordioan zehaztutakoak dira.

JARDUN OSOA Gehienez 37:30 ordu asteen	JARDUN ERDIA Gehienez 18:45 ordu asteen
Arreta zuzena Gehienez 30 ordu asteen	Arreta zuzena Gehienez 15 ordu asteen
Material prestaketarako eta koordinazioarako 2:30 ordu asteen	Material prestaketarako eta koordinaziorako 1:15 ordu asteen
Bazkaltzeko Gutxienez ordu 1 egunero (jangela zerbitzua emanez gero konputatuko da)	Bazkaltzeko Gutxienez 30 min egunero (jangela zerbitzua emanez gero konputatuko da)

Arreta zuzena: ikasgeletako, jolas orduetako, jangelako eta hedatze programako arreta.

Jangela zerbitzua: jangelako eta ondorengo edo lehenagoko jolas garaia.

Jangela zerbitzua ematen denean bazkaria doan jasotzeko eskubidea dago.

Hedatze programetako arreta, kurrikulumari lotutako gaiak direnean eta lehen saioan denean bakarrik emango da.

Jardun murrizketak dauden kasuetan, ordutegi bakar bat egin behar da eta ordutegi horren dagokion proportzioa egin beharko du langile bakoitzak. Bi langileak ezin dira ordu berean egon ikastetxean. Bat ateratzen denean bestea sartuko da.

LAN HITZARMENA

Dakizuen bezala, iazko ikasturte bukaerara arte lan hitzarmen berriaren negoziaketan ibili ginen. Uztaila bukaerara arte Heziketa Bereziko kolektibo guztientzat onuragarria izango den hitzarmen bat negoziatzen ibili ginen. Ikasturte hasierarekin batera Hezkuntza sailari negoziazio hau berreskuratu eta borobiltzea eskatu diogu. Gogoratu Hezkuntza sailarekin sinatu genuen akordio laboralaren eduki guztiak lan hitzarmenera ekarri dituztela eta horrekin batera kolektibo desberdinetan aurrerapausu eta epe laburrean atal batzuen negoziatorako bidea zabaltzen dela, besteak beste, ordezkoen araudia, plantillak esleitzeko irizpideak,... [Lotura](#) honetan daukazue egun dugun lan hitzarmena eta negoziazioan orain arte lortutakoen konparaketa taula.



BAGARA *zurekin* *Un sindicalismo diferente*



MEREZIMENDU LEHIAKETA

Gogoratu prozesu hau abenduaren 31 baino lehen bukatu behar dela.
Gaur gaurkoz onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta etengabeko prestakuntzari buruzko merezimenduengatik emandako puntuazioa jasota dago. Hurrengo urratsen zain gaude.

LAB IRAKASKUNTZAKO WEBGUNEA

Gogorazten dizuegu LAB irakakaskuntzako [web-gunea](#) dugula. Bertan, gure kolektiboko Lan hitzarmena, deialdiak, araudiak, gidak, etab. aurki ditzakezue.

TRAMITAGUNE ETA KOMUNIKABIDE

Tramitagunea eta komunikabide plataformak erabilgarri daudela gogorazten dizuegu.

➤ [Tramitagune](#) Hezkuntza administrazio espedienteak, eskaerak, erreklamazio formalak eta errekursoak sartzeko erabili beharko da. Administrazio-izapideetarako postontzia (ez du kontsulta orokorretarako balio)

Tramitagune Hezkuntza - ziurtagiriak. ziurtagiriak eskatzeko postontzia (Bakarrik Hezigunetik automatikoki ezin direnak deskargatu)

➤ [Komunikabide](#) aldiz, kontsultak, kexak eta iradokizunak egiteko erabili beharko da. Ez du espedienterik sortuko, ezta administrazio-izapiderik ere.

BakQ klabeak beharrezkoak izango dira tramite guzti hauek burutzeko.

HAURDUNALDIA ETA EDOSKITZEA

Haurdunaldia eta edoskitzea tramitzeko jarraibideak, azalpenak, dokumentuak... [lotura](#) honetan dituzue ikusgai.

HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO AZTERKETAK

IVAPek hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeke 2024ko bigarren deialdiko azterketetara dei egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan zerbitzuan diharduten irakasle eta heziketa-langileek ere izena eman dezakete. [Lotura](#) honetan duzue informazio guztia.

LAB HEZIKETA BEREZIKO LANTALDEA

Ikasturte berriarekin batera LAB heziketa bereziko lantaldea aurkeztu nahi dizuegu. Aurten bat gehiago izango gara, 5 lagun arituko gara buru belarri gure kolektiboen borroka aurrera eramaten: Araban Saioa Roa Sáenz egongo da, Bizkaian Alazne Ibáñez Azkona eta Maite Aramburu Olabarrieta eta Gipuzkoan Aiora Mendiburu Lopez eta Kattalin Ezkerra Sobrino. Goiburuko argazkia ikus.

Besterik gabe, animo ikasturte berriarekin. Edozein zalantza izanez gero, jarri gurekin harremanetan.

